

IRABAZI-ITURRIAK

Aplikazioa sortu ondoren, gure enpresak hainbat diru-iturri izango ditu. Diru-iturri hauek **bi multzotan** banatzen dira: **finkoak** eta **dinamikoak**. Gure enpresan diru-sarrera gehienak **dinamikoak** izango dira.

Diru-sarrera hauek nahiko egonkorak dira eta denboran zehar mantentzen dira.

Hasierako inbertsio egin ahal izateko diru-sarrerak:

- Bankuari eskatutako mailegua
- SEPEk emandako diru laguntza

Diru-sarrera finkoak:

- Beste enpresen publizitatea gure aplikazioan (adibidez, jokoan iragarkiak).

Diru-sarrera dinamikoak:

Diru-sarrera hauek aldakorak dira, erabiltzaile kopuruaren edo erabileraren arabera.

- Aplikazioaren deskargak.
- Aplikazioaren barruko publizitatearen klikak edo ikustaldiak.
- **Premium bertsioa:** erabiltzaileek **3,99 €** ordainduta aplikazioa iragarkirik gabe erabili ahal izango dute.
- Funtzio gehigarriak edo zerbitzu bereziak ordainduta (adibidez, alerta pertsonalizatuak).
- Erabiltzaile kopuruaren hazkundearen arabeko diru-sarrerak.

